

BIXENTE LATIEGI'REN «ELEIZ-KONDAIRA»

«Eliz-Edesti-sorta» izen-buruarekin atara barri dau Latiegi'tar Bixente apaizak. Liburu bi dituzu, biak bikañak. Gero etorri-ko dira beste batzuk, kondaira osoa borobildu ta osoturik. Lenengo bi oneitan egilleak, dirudienez, atalik garrantzitsuenak aukeratu ditu, eta ondoren izango dira besteak, Euskeratzaintza-ren babespean eta laguntzaz argitara emonak. Lan au euskeraz oraindik egin bage geunkan, zatiren batzuk bai, baiña ikuspegi zabalez egiteko.

Onek erakusten dauskunez arnas aundika gizaseme dugu egillea, edonork ez bait dau onako lana burutzeko adorerik. Gogoz artu bear da gaia, ikasi ta sakondu, ausnartu, eleiz-gizona izanik be, eleiz-karreran ikasitakoa ez dozu-ta naikoa; orduan gaituko zara konparaketak egin al izateko, norbere eritxian oiñarriturik tinko ta zuzen aurrera egiñik lan txalogarria erpiñera eroateko.

I

Lenengo liburuan, denpora oneitako eleiz-goraberak ikusi ta aztertzen dauskuz Latiegi'k. Eskuetan darabilen aro bakotxari gurpillean ikutzen dautso nasai; eta au, zelan ukatu? meritu aundia izan. Bere istoria dagi bakotzak, berdin aldi edo aro bakotzak be: aro bakotzak ditu, jakiña bere gogoeta, sentipen eta jokaerak.

Au kontuan ez artzeagaitik, kondaira kritikan, eritxia emokeran batez be, laprast galantak emon oi dira. Argikuntza edo ilustraziño deritxon aldiari ekiñez onela asazkatzen da egillea: «Gaur-egun biziki sentitzen ditugu gizartean eta Eliza-baitan sozialogiari buruzko arazoak. Argikuntza aroko jende aiek arazo aiek ez zituzten orrela sentitu. Are geiago, ez zituzten ikusi ere egin! Ez zaitetz guk ere gaur ez bait ditugu, biar jendea biziki kezkatuko duten arazoak ikusten. Bakoitzari berea, da zuzenbidea. Berdin edestiaren barrutian: Aro bakoitzari, berea; berea bakarrik! Ez al da orixe gertatzen gizakume bakoitzaren edestitxoan ere? Gauza batzuek kezkatzen dute ogei urteko mutilla, eta beste batzuek larogei urteko agurea. Arrazoiketa zuzenean, ez zaio inorreri zillegi neskatil gazte bi amona xarrarenak diran pentsabiderik eta jokabiderik eskatzea, ezta alderantziz, amona xarrari neskatil gaztecarcnak diranak. Aro bakoitzari, berea!

Eta au gai eta momentu guztietan. Ezta erreza. Ortarako asko irakurri ta ausnartu bear da, Latiegi'k egin dauan bezela, aldi batekoak eta bestekoak; zer egin, esan eta idatzi, norekin artu-emoñean bizi, zelako istillu ta hiskar artean bizi... Zelakoa izan zan Eleizaren jokabidea. Labur: edesti-aro ortako goraberak alik zeatzen arakatu ta orekan jarri. Idazlea, ta kritikalaria, orduan dago prest eritxi zuzen, artez eta zentzuzkoa azpimarratzeko. Ostelan oba olako matazetan es sartzea, bare sailletik kanpo bait dabil.

Aro bakotxeko bedar txarrak astintzen mutilla agertzen jaku Latiegi. Or argikuntza garaia, Aita Santuak (X Inozentzi, IX Klemente, XIII Alesander, XIII Benedikto ta besteak), or Galikeria, Jantsenikeria, Josepekeria, Burgesia... Eta orreik, emen sortuak izan ez arren, onaiño bota ebezan izpi zantarrak, emen izan zituen ondoren galgarriak be garbi jarten dauskuz. Jantsenikeriak, esaterako, gure baionatar Saint-Cyran zirikatzaile zala, gure errian zabaldu, sendotu ta pozoi-azo eban gatxa, luze ta sakon adierazten dau.

Saint-Cyran azkarra, zorrotza ta eragillea zan, Europa'n izen

zabala lortu ebana Paris'en egoala adiskide asko beregandu zitu-
tuan, jakitunen artean berezienak; gero, aren dotriña biurria
ikusirik, askok beintzat alde egin eben aregandik, Richelieu, San
Bizente Paul eta besteak. Richelieu kardenalak, frantses erreñu-
rako kaltegarri zala-ta, espetxean sartu eban. Orrez gain, artaz
onela idatzi be bai: «Euskalduna da, ta beroak ditu erraiak, eta
sutsuak; eta arrazoiketa garbitzat edo-ta Espiritu Santuaren ira-
kaspentak lez artzen ditu, geiegizko galda arek buruan sortzen
dautsozan asmaketa illunak».

Argiegia zan Saint-Cyran eta Richelieu lango gizasemai ar-
giak kalte egiten cutsoela, esan geinke guk. Onakoak ezagutzen
doguz geure artcan be, eta gure euskaldunak adar-joten asi ez-
kero, ba-eban sua naiz grazia ortarako.

II

Bigarren liburuari «San Inazioaren denborako Eliza» deri-
txo; au da; «Birjaiotza, Protestanteen garaia eta Elizaren Eraba-
ritzea. 430 orrialde. Lenengoa lez zentzun aundiz egiña. Asi ez-
kero, orriz orri, konturatu barik irakurten dana.

Aro urduritsua izan zan San Inazioaren denpora. Ona egi-
lleak pizkunde oni buruz «Beti izan oi da jaiotza gertakizun
alaia. Eta alai ba'da jaiotza, naitanaiez izan bear du gertari alaia
birjaiotzak ere, eriotzaren illunpetik bizitzaren argira piztuteak.
Benetan aldi alaia izan zan beintzat, gizadiarentzat, Birjaiotzako
aldi dizdiratsu ura. Bai noski! Baiñan, ala ta guzti, izan zan guda-
rik, borrokarik eta samintasunik naiko Birjaiotzako aldi dizdirat-
su artan ere».

Negarrik eta pozak izan ziran, gerrak eta bake-antzak, gi-
zon argiak eta langilleak ainbar arlotan. Birjaiotza itzak zerbait
illik egoala esan nai dau. Eta orixe zan izan be barriro jaio jaku-
na. Jakintza arloa batez be, ilda egoan eta biztu egin zan. Loratsu
agertu jakun Eleizea Erdi-Aroko mendectan.

Geienen uste Filosofia, jakintza izan zan berbiztu zana, eta

orren biren artea batez be; auxe dogu bai eriotzatik biztu azoa. Oker dabil, oker, erdiaroa filosofiz antzu eta artez legor izan zala uste dauana. Naiz-ta geroko gizaldietakoak (sasi-filosofuak) ori uste izan eta aldarrikatu, erdizka baiño ez da ori egia.

Arte arloan iru gizon ospetsu aitatzen digu gure idazleak: Boccaccio, Petrarka eta Dante. Erdi-Aroko eskolastikak Jainkoa izan eban begien eta adimenaren aurrean, ikuspegi bakarra. XIV^ogarren mendean, barriz, legor, igartua agiri zan dotriña ori. Eta garai artan, Jainkoaz aztu bage, giro barri bat sortu bear zan, eta jakintsuak bide barriak urratu ebezan antxiñako gerkar eta erromatar artera joaz batez be. Latiegi^k onan: «gauza jakifiña da, ba, filosofiarri eta ertilariei klasiko zar aien ardura bakarra giza-kumea izan zala. Gizon-emakumeen edertasuna, era egoki eta atsegiñean aurkeztea izan zuten elburu».

Bizitzako giro barri bat arne-azo gura zan, umanismuaren ondoren legez. Jakintza ez, bizitzeko «era» barri bat. Ortarako zer aukeratuko? Grezi ta Erroma^{ko} olerkari ta poetan esanak eta abestiak. An egozan gaiñera Aristotel, Platon, Bergili, Obidi ta bestcak. Eta Latiegi^k: «Elburu berriz, nor bere burua ospetsu egitea, izan zan Birjaiotzako gizascme-alaben elburua».

Gai onen ostean doaz Aitasantuak, Martin Lutero, Elizaren Erabarritzea, Jesus'en Lagundia, Praille Ordenen barrikundea, Santa Teresa ta Gurutzeko Juan santua, Trento^{ko} Eleiz-Batzar Nagusia, Kristau bizikeraren itxarkundea, Teologiaren berbizkundea, Anaidi barriak, Mixiñoak eta abar.

Eta zer esango darabilen cuskereaz? Arin eta esku atsegiñez gauzak aztertu ta adierazten dituna. M. Lekuona^k bein egilleari: «Bein irakurtzen asi nintzan ezker, ez det eskutik uzteko indarrik izan». Gauza berbera diñot nik be. Lantxo au egin nairik batez be, artu neban eskuetan liburua, lenengo bata ta gero bestea, eta astitsu irakurriz ezin laga izan dodaz eskutik. Eleizearen goraberari buruzko auziakaz jabetu nai daben guztientzat oso premiñazkoa dala dirudit liburuok irakurtea.

Gai atsegiñak atsegingarri esan, orretan alegindu bear da

idazlea. Bakotxak bere muin-izaera berezi-aparta; idazterakoan ostera, idazten doguzan lerro artean itxi oi duguz geure arima zatiak; onek ontara, arek aretara; batzuk errez, beste batzuk ez ain errez, buru-galbaeak zelan iralgiten ditun gaiak.

Liburu bi oneitan idazleak opa dauskun mamiña, barru ta azal, edozeinentzat jakingarri, oparo ta bizia dozu. Irakur sail batzuk eta laster egingo zara bere euskerara.

Emon oneko zugatza da Latiegi. Artu ta txasta egizu beronen aleetatik.

Aita Onaindia